

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO PLANAREN AZTERKETA ETA DIAGNOSTIKOA



Hitzaurrea: irakurzaletasuna kultura-gastuan

Biztanleriaren ezaugarri esanguratsu batzuk

Kultura-ohiturak eta irakurtzeko ohiturak

Irakurzaletasuna EAEn

Irakurrizko ulermena nerabeen artean

Liburutegiak eta irakurketa publikoko sarea

Irakurzaletasuna eta IKTak

Irakurzaletasuna eta internet

Gazteak eta IKTak

Euskararen erabilera EAEn

Ondorioak: publikoak eta jardun-eremuak identifikatzea

HITZAURREA: IRAKURZALETASUNA KULTURA GASTUAN

EAEEn irakurzaletasuna zertan den aztertu eta diagnostikatzeko, zenbait ikuspegitatik abia gaitzke. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saitetik sustatutako jardun-planaren esparruan, behar-beharrezkoa da, nolnahi ere, irakurzaletasuna bere konplexutasun osoan hartzea. Hau da, administrazio publikoak eta gizarte-eragileek zer alderditan eragin eta zer alderdi eraldatu behar dituzten azpimarratu behar da, eta, aldi berean, jardun horrek zer gizarte-sektoretan, eremutan eta gunetan eragin behar duen zehaztu behar da, lehentasunak ezarriz jarduna benetan eraginkorra eta positiboa izan dadin.

Premisa horretatik abiatuta, gaur egun irakurzaletasunak euskal administrazioen kultura-politikan zer toki betetzen duen aztertzea abiapuntu egokia izan daiteke, irakurzaletasuna sustatu eta garatzeko eta irakurzaletasunari lotutako zerbitzuei eusteko bideratzen diren aurrekontuak aintzat hartuta. Gastu publikoa da administrazioen borondate politikoa ondoen adierazten duena, administrazio horiek arlo eta zerbitzu jakin batzuetan herritarrekiko hartutako konpromisoaren isla den heinean.

Eskuragarri ditugun datuak aztertuta¹, honako bi alderdi hauek azpimarra daitezke. Lehenik eta behin, aipatzekoa da irakurzaletasuna sustatzeko politikei lotutako gastua txikia dela EAEren kultura-gastu osoaren aldean. Aztertutako kultura-eremu guztien artean, irakurzaletasuna sustatzeko politikekin zerikusia dutenak bi direla esan dezakegu: Liburutegiak batetik, eta Literatura eta edizioa bestetik. Ildo horretan, 2008an EAEEn kulturen kontsolidatutako gastuaren % 6,7 Liburutegien esparruari lotu zitzaion, eta % 0,8 Literaturak eta edizioak osatutako esparruari, hurrenez hurren. Bi esparru horiek batera, kultura gastu osoaren % 7,5 dira, oso urrun beraz Musikari (% 18,8), Museoei (% 17,9) edo Kultura-ekintzari (% 13,7) esleitutako ehunekoetatik. Ehuneko hori Ondareari eta arkeologiari (% 8,6) eta Antzerkiari eta dantzari (% 8,4) dagokienaren azpian ere badago, baita Jaien eta herri kulturaren esparruari (% 8,4) dagokionaren azpian ere. 2008an, biztanleko kontsolidatutako gastua 15,7€ izan zen Liburutegietan eta 1,9 € Literaturan eta edizioan, hurrenez hurren; guztira, 17,6 € biztanleko urtean irakurzaletasunari loturik; Musikan edo Museoetan, berriz, biztanleko kontsolidatutako gastua 44,1€ eta 42,1€ izan zen, hurrenez hurren. Irakurzaletasunak eta bereziki liburutegiek kultura-gastuaren osotasunean betetzen duten toki hori guztiz bestelakoa da Europako beste herrialde batzuetan, baita gainerako autonomia-erkidegoetan ere, azken kasu horretan aldeak hain nabariak ez badira ere.

Bigarrenik, EAEko kultura-gastuaren zifrek aditzera ematen dute indarrean dagoen eredia deszentralizatua dagoela, eta kulturaren gastu publikoaren zati handiena tokiko erakundeen kargura doala. Izan ere, udalak dira herritarrei kultura-eskaintzak eta -zerbitzuak eskaintzeko aurrekontu-ahalegin handiena egiten

¹ Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia, *Estatistika. Finantzaketa eta gastu publikoa kulturen. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2008 (2011)*. Honako honetan eskuragarri: http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19803/es/contenidos/informacion/keb_publicaciones_gastua/es_publicac/adjuntos/financiacion-gasto-publico.pdf.

dutenak, eta 2008an guztizko aurrekontuen % 9 bideratu zuten xede horretara; Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak, ordea, % 3,6 eta % 0,6 baino ez zuten eskaini, hurrenez hurren. Udalek zeresan handia dute irakurzaletasunari lotutako kultura-gastuan: Liburutegietan guztira egindako gastuari dagokionez (36,3 milioi euro 2008an), Udalek % 52,1 finantzatu zuten, Foru Aldundiek % 25,4, erakunde autonomoek % 14,9 eta Eusko Jaurlaritzak % 7,6, hurrenez hurren. Eta Literaturan eta edizioan guztira egindako gastuari dagokionez (4,2 milioi euro 2008an), Udalek % 36,5 finantzatu zuten, Foru Aldundiek % 14,5, Erakunde autonomoek % 7,00 eta Eusko Jaurlaritzak % 42,0, hurrenez hurren. Oro har, bi esparruak batuta, Udalek % 50,5 finantzatu zuten, Foru Aldundiek % 24,3, Erakunde autonomoek % 14,1 eta Eusko Jaurlaritzak % 11,2, hurrenez hurren. Liburutegiei buruzko estatistikak oinarritzat hartuta ikus dezakegunez, udalek erabateko nagusitasuna dute irakurketa publikoko sarean, 10 eurotik 9 jartzen baitute, autonomia-erkidego guztien eta Espainiako batez bestekoaren (10 eurotik 6) gainetik.

Gainera, udalen kultura-gastuaren harira aipatzekoa da desoreka handia nabari dela udalen artean: izan ere, udalerrri txikienetako udalek egin behar dute ahalegin handiena, nabarmen handiagoa 20.000 biztanletik gorako udalerrietako eta probintziaburuuetako udalek baino. Liburutegietan egindako gastuari dagokionez, desoreka are handiagoa da: 5.000 biztanletik beherako udalerrietako udalek kultura-gastuen % 8,3 bideratzen dute Liburutegietara; probintziaburuuetako udalek, aldiz, beren kultura-gastuaren % 3,4 baino ez dute bideratzen xede horretara.

Hortaz, udalaz gaineko erakundeek eta bereziki Eusko Jaurlaritzak herritarrekiko konpromisoa areagotu beharko lukete irakurzaletasunaren esparruan, batetik, zuzenean kudeatzen dituzten zerbitzu eta programen bitartez, eta, bestetik, tokiko administrazioak herritarren premia eta eskariei aurre egiteko erabiltzen dituen baliabideak bultzatuz eta abian jarritz.

BIZTANLERIAREN EZAUGARRI ESANGURATSU BATZUK

2010eko urtarrilaren 1ean,² EAEn 2,18 milioi biztanle zeuden. Hamarkadaren hasieran baino 70.000 pertsona gehiago dira, eta horrek esan nahi demografia neurrian hazi dela; saldo positibo hori etorritako atzerritarrei esker gertatu da.

EAEn bizi diren atzerritar etorkinak biztanleria guztiaren % 6,4 dira, eta ehuneko hori nabarmen txikiagoa da Espainia osoan erregistratutakoa baino (% 12,2), baina nolana ere bi aldiz handiagoa EAEn bost urte lehenago erregistratutakoa baino. Ezbairik gabe, atzerritarren presentziak kultura-mestizajearen prozesuak bultzatzen ditu, eta biztanle horien bereizgarriak hezkuntza-, kultura- eta gizarte-zerbitzuetan

² Iturria: EIN, *Biztanleen udal-errolda*; honako honetan eskuragarri:

<http://www.ine.es/inebmenu/indice.htm#6a>.

hartu behar dira kontuan, baita irakurzaletasuna sustatzeko politika publiko bati helderakoan ere.

Aipatzekoa da, halaber, euskal biztanleria poliki-poliki zahartzen ari dela. Bost euskal herritarretatik batek (% 19,2) 65 urte edo gehiago ditu, eta, bilakaera demografikoari jarraiki, aurreikustekoa da datozen urteetan zahartze-indizeek gora egingo dutela, Espainiako batez bestekoaren gainetik (% 16,9 65 urterekin edo gehiagorekin). Hala eta guztiz ere, azken bost urtetan gazteenen (14 urtetik beherakoak) proportzioak hobera egin du (% 12,5, orain bost urte baino puntu bat gehiago), baina Espainiako batez bestekoa lortu gabe.

Egitura demografikoa funtsezkoa da gizarte batek irakurzaletasunarekin duen harremana ulertzeko eta harreman horri heldzeko. Adinaren faktorea estu lotuta doa irakurketa-ohiturekin eta oro har kultura-ohiturekin, eta ingurune digitalean garrantzi hori areagotu egin da, gizarte- eta kultura-arloko eta hezkuntza-arloko hesi berrietarako muga izan daitekeen heinean.

EAEko biztanleriaren lurraldez lurraldeko banaketaren bereizgarriak ere kontuan hartzekoak dira. EAEko herritarren erdia baino gehiago (% 53,0) Bizkaian bizi da, heren bat (% 32,5) Gipuzkoan, eta gainerakoak (% 14,6) Araban, hurrenez hurren. Nolanahi ere, azken probintzia horri dagokionez esan beharra dago biztanleriaren hiru laurden (% 75,1) hiriburuan, Gasteizen alegia, bizi dela, eta hortaz, EAEko hiru lurraldeen datu desagregatuak aztertzean, Arabaren kasuan funtsean hiriburua zehazten edo deskribatzen ari garela. Alabaina, pisu demografiko horrek ezin du ezkutatu landan gutxiengo bat ere badagoela, agian hiriburuko biztanleriaren ezaugarri berberak ez dituenak. Bizkaiari buruz antzeko zerbait esan dezakegu. Izan ere, Bizkaiko biztanleriaren % 30,6 hiriburuan, Bilbon alegia, kontzentratzen da, eta ehuneko hori % 70etik gorakoa ere bada baldin eta Bilbo Handia osatzen duten gainerako udalerriak aintzat hartzen baditugu, metropoli-area horretan ia-ia 900.000 biztanle biltzen direla.

Gipuzkoan, ordea, banaketa homogenea da: Donostian gipuzkoarren laurdena baino pixka bat gehiago bizi da (% 26,2), eta gipuzkoarren erdia baino pixka bat gutxiago (% 42,4) 10.000-50.000 biztanleko udalerrietan bizi da. Hain zuzen ere tamaina horretako udalerriak dira EAEko biztanleriaren bereizgarrietako bat. Izan ere, EAEn guztizkoaren herena dira (% 33,4), eta Espainian % 6,9 bakarrik.

Azkenik, EAEko biztanleen eta irakurzaletasunaren arteko harremana aztertzerakoan, azpimarratzekoa da hezkuntza-maila nabarmen handiagoa dela Espainiako batez bestekoa baino. 2005eko datuen arabera, EAEko 16 urteko edo urte gehiagoko biztanleriaren herenak (% 32,6) goi-mailako ikasketak zituen, hamar puntu Espainiako batez bestekoaren (% 22,0) gainetik. Aitzitik, 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleria analfabetoa edo ikasketarik gabea % 4,0 zen EAEn, zortzi puntu eta erdi Espainiako guztizkoaren (% 12,4) azpitik. EAEko biztanleriak emaitza onak lortu ditu irakurmena neurtzeko PISA ebaluazioetan, bai ELGaren batez

bestekoan bai Espainiako batez bestekoa gainditzen duten autonomia-erkidegoen artean, EAEko biztanleriaren hezkuntza-maila onaren adierazgarri.

KULTURA OHITURAK ETA IRAKURTZEKO OHITURAK EAE-N ³

EAEko biztanleriaren kultura-ohiturak askotarikoak dira, eta mota guztietako jarduerak biltzen dituzte, nola aisialdi eta astialdikoak hala zaletasunak, baina egia esan ohitura horiek jarduera orokorrenetan biltzen dira batik bat.

Kulturaren Euskal Behatokiaren *2007-2008ko Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistikaren arabera*, 15 urteko eta urte gehiagoko euskal biztanleriarentzat musika entzutea da kultura-jarduera nagusia, eta 7,3 puntuko balorazioa eman diote Otik 10era bitarteko eskalan; irakurketari eta zinemari 7,2 eta 6,2 puntu eman dizkiete, hurrenez hurren, eta azkenik, liburutegietara joateari 3,9 puntu.

2009. urteko Euskal Autonomia Erkidegoko liburuak irakurtzeko eta erosteko ohiturei buruzko azterlanaren arabera, halaber, musika (% 82,9), irakurketa (% 70,4) eta zinema (% 70,0) dira jarduera gogokoenak 14 urteko eta urte gehiagoko biztanleriaren artean, eta jarraian kirola (% 61,2) eta internet (% 48,6). Hala ere, galderari bat-bateko erantzuna eman behar izan diotenean, liburuak irakurtzea hirugarren tokian ageri da (% 24,8), musika entzutea bosgarren tokian (% 11,9) eta zinema zortzigarrenean (% 7,1).

³ Iturri nagusiak: Kulturaren Euskal Behatokia, *Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ohiturei, -praktikei eta kontsumoari buruzko estatistika, 2007-2008*; honako honetan eskuragarri:

http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19123/es/contenidos/informacion/est_hp/es_hp_cae/hp_cae.html.

Euskadiko Editoreen Elkarte, *Liburuak irakurtzeko eta erosteko ohiturak Euskal Autonomia Erkidegoan*.

2009. urtea, honako honetan eskuragarri: [http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-](http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19803/es/contenidos/informacion/keb_publicaciones/es_publicac/adjuntos/HLCL%20C.A.%20VASCA%202009_V2.pdf)

[19803/es/contenidos/informacion/keb_publicaciones/es_publicac/adjuntos/HLCL%20C.A.%20VASCA%202009_V2.pdf](http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19803/es/contenidos/informacion/keb_publicaciones/es_publicac/adjuntos/HLCL%20C.A.%20VASCA%202009_V2.pdf).

Hezkuntza Ministerioa: *PISA-ERA 2009*; honako honetan eskuragarri:

[http://www.educacion.gob.es/dctm/evaluacion/internacional/informe-espanol-pisa-era-](http://www.educacion.gob.es/dctm/evaluacion/internacional/informe-espanol-pisa-era-2009.pdf?documentId=0901e72b80d24b47)

[2009.pdf?documentId=0901e72b80d24b47](http://www.educacion.gob.es/dctm/evaluacion/internacional/informe-espanol-pisa-era-2009.pdf?documentId=0901e72b80d24b47)

Eusko Jaurlaritzaren Irakas-sistema Ebaluatzeko eta Ikertzeko Erakundea: *PISA 2009 Euskadi*.

Ebaluazio-txostena; honako honetan eskuragarri: [http://www.isei-ivei.net/cast/pub/pisa2009/PISA2009-](http://www.isei-ivei.net/cast/pub/pisa2009/PISA2009-EUSKADI-1INFORME.pdf)

[EUSKADI-1INFORME.pdf](http://www.isei-ivei.net/cast/pub/pisa2009/PISA2009-EUSKADI-1INFORME.pdf), eta *PISA 2009 Euskadi.2. ebaluazio-txostena: aldagaien azterketa eta ikasleen*

irakurketako emaitzan duten eragina; honako honetan eskuragarri: [http://www.isei-](http://www.isei-ivei.net/cast/pub/pisa2009/PISA2009-2informe-analisis-variables.pdf)

[ivei.net/cast/pub/pisa2009/PISA2009-2informe-analisis-variables.pdf](http://www.isei-ivei.net/cast/pub/pisa2009/PISA2009-2informe-analisis-variables.pdf)

Erreferentzia gisa: MCU, *Encuesta de hábitos y prácticas culturales en España 2006-2007*; honako

honetan eskuragarri: <http://www.mcu.es/estadisticas/MC/EHC/2006/Presentacion.html>. Europako

Batzordea, *European Cultural Values 2007 (Special Eurobarometer 278)*; honako honetan eskuragarri:

http://ec.europa.eu/public_opinion/archives/ebs/ebs_278_en.pdf.

... *ohiturei* buruzko azterlanean jasotako astialdi-jarduera guztiak hedatuago daude irakurleen artean; telebista ikustea eta ezer ez egitea, ordea, irakurtzen ez dutenen artean hedatu dira gehiago.

... *estatistikatik* lortutako datuen arabera eta Eurostatek eta Kultura Ministerioak urte horretarako emandako datuak oinarritzat hartuta, liburuak irakurtzea eta zinemara joatea Europako batez bestekoaren adierazleetatik oso gertu dabilta, eta Espainiako batez bestekoaren gainetik nabarmen.

Biztanleriaren kultura-ohiturak probintziaz probintzia nola banatzen diren aztertzean zenbait alde nabari dira. Antza denez, Araban erregistratu dira ehuneko handienak aztertutako jarduera gehienetan, eta litekeena da hori hala izatea hiriburuan probintzian baino askoz ere jende gehiago bizi delako, kontuan hartuta kultura-jarduera horiek hiriko profil argia dutela.

Irakurzaletasuna EAEn ⁴

Orain urte batzuetatik hona, 14 urteko eta urte gehiagoko biztanleriaren artean astialdiko liburu-irakurle gehien dituen autonomia-erkidegoen artean dago EAE; ...*estatistikak* erakusten duenez, jarduera gogokoenetako bat da euskal herritarren artean.

Euskal Autonomia Erkidegoan liburuak irakurtzeko eta erosteko azken azterlana 2009koa da, eta, horren arabera, 14 urte eta gehiagoko biztanleriaren artean liburuak irakurtzen dituztenak % 57,5 dira, 2,5 puntu Espainiako urte horretako batez bestekoaren (% 55,0) gainetik. Irakurle horietatik % 46,9k maiz irakurtzen du, eta % 10,6k noizbehinka. Ohiko liburu-irakurleak, hau da, astialdian gutxienez hilean behin liburuak irakurtzen dituztenak, % 53,6 dira. Espainiako eta EAEko datuak aztertzean ageri diren alde nagusiak EAEko herritarren aldekoak izan dira, eta honako talde hauetan nabarmendu dira gehien: 14-24 urteko biztanlerian, bigarren mailako ikasketak dituztenen artean, eta langabe, erretiratu eta 10.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi direnen artean. Etxekoandreak, ordea, EAEn Espainian baino 4,9 puntu beherago daude, batez beste.

EAEko liburu-irakurlearen profilak, funtsean, beste zenbait autonomia-erkidegotan eta oro har Espainian atzemandako parametro berberak ditu:

1. Liburuak irakurtzeko ohiturak gehiago hedatu dira emakumeen artean, eta sexuen artean 10 puntutik gorako aldea nabari da 2009an ...*ohiturak* izeneko azterlanean bildutako datuen arabera, eta 6 puntutik gorako aldea,

⁴ Datuak zer iturritik sortu diren zehaztu ez dugunean 2009ko *Euskal Autonomia Erkidegoko liburuak irakurtzeko eta erosteko ohiturak* izeneko azterlana hartu dugu aintzat, eskuragarri dugun informazio berriena delako.

berri, azken urtean irakurritako liburuei erreparatzen badiegu, ... *estatistikaren* arabera. Euskarazko liburuak irakurtzea, aldiz, ohikoagoa da gizonen artean (% 37,6) emakumeen artean (% 33,8) baino, ... *estatistikaren* arabera.

2. Adin taldeen artean oso alde handiak nabari dira, eta gazteenen artean aurkitu ditugu irakurle gehien, gaztelaniaz zein euskaraz, irakurketan oro har eta euskarazko irakurketan 29 puntuko eta 34,7 puntuko aldea nabarmendu dela 14 urtetik 24 urtera bitarteko biztanleriaren eta 55 urtetik gorakoen artean, 2009an eta *ohiturak* izeneko azterlanaren datuen arabera.
3. Hezkuntza-maila zenbat eta handiagoa izan irakurzaletasuna orduan eta handiagoa da, eta aldagai horrek erakutsi ditu alderik handienak adin-taldeen artean, hain zuzen ere 60 puntutik gorako aldea goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen eta ikasketarik ez dutenen artean, ... *ohiturak* izeneko azterlanaren datuen arabera (2009), eta 2 puntuko aldea jarduera horren balorazioan ... *estatistikaren* arabera.
4. Elkarrizketatuen jarduerak haien irakurtzeko ohituretan eragiten du. Hala, irakurle kopuru handiena ikasleen artean dago, eta etxeako andrea eta erretiratuen artean, ordea, ehunekoak betiere batez bestekoen azpitik dabilta.
5. Irakurtzeko ohiturak hedatuago daude udalerrri handietan bizi direnen artean, baina EAEn aldeak askoz ere txikiagoak dira beste autonomia-erkidego batzuetan eta Espainian baino, alde horiek ez dutelako inondik inora 10 puntuko aldea gainditzen, udalerrri horietan irakurketa-indizeak (% 49,6) Espainian baino dezente handiagoak direlako (% 40,9).
6. Probintziaz probintzia aldeak nabari dira, baina ez oso adierazgarriak ... *ohiturak* azterlanaren irakurleei buruzko guztizko datuen arabera, eta pixka bat handiagoak baldin eta ... *estatistikaren* ohiko irakurleei buruzko datuei erreparatuz gero. Estatistika horren arabera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 15 urteko eta urte gehiagoko biztanleriaren % 75,2k, % 68,7k eta % 65,5ek liburuak irakurtzen ditu aisialdian (% 75,3, % 67,8 eta % 70,7, ... *ohiturak* azterlanaren arabera), hurrenez hurren.

Gainera, EAEko liburu-irakurlearen profila Espainiako testuinguruarekin alderatzean, kontuan hartzeko moduko zenbait datu ageri dira sexuaren, adinaren eta ikasketen mailen arabera irakurketa-indizeen banaketari dagokionez: alde handiagoak emakumeen eta gizonen artean 35 urtera arteko biztanlerian; sexuaren arabera alde handiagoak, halaber, ikasketen mailaren arabera, lehen mailako ikasketak dituztenen artean emakumeek 28 puntu gehiago atera dituztela; ohiko

irakurleen ehunekoan ere beherakada handiagoa nabari da 10-13 urteko biztanleriaren (% 94,4) eta 14-18 urteko biztanleriaren (% 66,6) artean.

Irakurtzeko arrazoiei dagokienez, ...*estatistikaren* arabera irakurtzeko ohiturek zerikusi handiagoa dute aisiarekin lanbide-eremuarekin edo ikasketekin baino; ildo horretan, azken hilabeteetan euskal herritarren % 45,7k aisia-arrazoiak zirela medio irakurri du, eta % 18,7k bakarrik ikasketak edo lanbidea zirela medio.

2009an, 14 urteko eta gehiagoko 10 elkarrizketatutik zazpik (% 69,9) libururen bat irakurri zuen azken urtean, batez beste 7,7 liburu irakurri dituztela, 1,3 liburu gutxiago Espainiako batez bestekoak (9,2) baino. Irakurtzeko ohituren intentsitate txikiago hori gazteenen artean nabarmendu da bereziki.

2007an, ... *estatistikaren* datuen arabera, 15 urteko eta urte gehiagoko euskal herritarren % 73,1ek gutxienez liburu bat irakurri zuen azken urtean. Urte horretan, European eta Espainian azken urtean gutxienez liburu bat irakurri zutenak batez beste % 71,0 eta % 57,7 izan ziren, hurrenez hurren.

Beste zenbait autonomia-erkidegotan eta Espainian bezalaxe, EAEn irakurketa-intentsitatea maiztasun handienarekin irakurtzen dutenen artean kontzentratu da nolabait: hilabeteetan liburu bat edo gehiago irakurri duten (13 eta gehiago urtean) irakurle horien bostenak (% 20,5) irakurri ditu irakurritako liburuen erdia (% 50,8); irakurritako gainerako liburuen banaketa ia parekoa da urtean 5-12 liburu irakurri dituztenen (% 41,7) eta 1-4 liburu bakarrik irakurri dituztenen (% 37,9) artean.

Asteko irakurketa-orduei dagokienez, Espainian bezalaxe, batez besteko handienak gizonen artean (Espainian baino alde txikiagoekin izan bada ere), 55 urtetik gorakoen artean eta udalerrri handienetan jaso dira. Azken batean esan dezakegu ohiko irakurleen proportzio txikiagoa duten kolektiboek intentsitate handiagoz irakurtzen dutela, astean irakurtzen emandako orduei eta urtean irakurritako liburuei dagokienez, eta alderantziz.

... *ohiturak* izeneko azterlanaren datuen arabera, 2009an Euskadin irakurtzeko ohiko edo noizbehinkako hizkuntza gaztelania izan zen % 99,8an. Nolanahi ere, biztanleriaren herenak (% 33,4) euskaraz ere irakurtzen du sarri edo noizbehinka, eta % 15,5ek ingelesez. Gazteenek, ikasleek eta unibertsitate-prestakuntza duten pertsonak euskaraz irakurtzeko batez besteko ehunekoa gaitzen dute, baita 50.000 biztanlera arteko udalerrietan bizi direnek ere.

Liburuak ez ezik, euskal herritarrek bestelako euskarriak ere irakurtzen dituzte, hala nola prentsa (% 87,9), aldizkariak edo bestelako astekari edo hilabetekariak (% 47,7) eta komikiak (% 10,4). Ia irakurle guztiek paperean inprimatutako edizioetan irakurtzen dituzte, gaur egun horixe baita irakurtzeko oinarritzko euskarria. Nolanahi ere, ezin dezakegu alde batera utzi ordenagailu bidezko

irakurketa hartzen ari den garrantzia, irakurle horien hamarretik bik internet bidez ere irakurtzen dutela adierazi baitute.

Liburuaz bestelako euskarrietan irakurtzen dutenen profilak zenbait bereizgarri dauzka liburu-irakurlearen aldean sexuari, adinari eta lanbideari dagokienez, baina profil horrek bere horretan jarraitu du ikasketa-mailari eta habitataren tamainari dagokienez (aldizkarietarako izan ezik). Gainera, liburuak irakurtzen dituztenek beste euskarri mota batzuk ere neurri handiagoan irakurtzen dituztela egiaztatu da.

...*ohiturak* izeneko azterlanaren datuen arabera, gizonek neurri handiagoan irakurtzen dituzte aipatutako euskarri guztiak aldizkariak izan ezik, eta 10 puntuko aldea ere nabari da material horiek euskarri elektronikoen bitartez irakurtzen dituztenen artean (% 27,0 gizonezkoak dira eta % 16,9 emakumezkoak, hurrenez hurren).

Adinen arabera, egunkarien irakurketa gehiago hedatu da 35-54 urte dituztenen artean, eta batez bestekoaren azpitik dabil 25 urtetik beherakoen artean; aldizkariak irakurtzeko ohitura 18-44 urte dituztenen artean nabari da batik bat, baita haur eta nerabeen artean ere; euskarri elektronikoen bitartez irakurtzeko ohitura 25-34 urtekoen artean hedatu da bereziki, eta oso gutxi 55 urtetik aurrera; eta komiki-irakurle gehienek 10-13 urteko (% 56,7) adina dute.

Etheen liburu-horniduraren aldagaiak, ezbairik gabe, adin goiztiarretan irakurtzeko ohiturak garatzearekin eta helduen artean irakurtzeko praktikari eustearrekin du zerikusia. 2009an EAEko etxeek 152 liburu zituzten batez beste, eta adierazle hori nabarmen txikiagoa da Espainiako urte horretako batez bestekoa (202 liburu) baino. Alabaina, EAEko hamar etxetatik hirutan bakarrik (% 30,0) dituzte testukoak ez diren 100 liburu baino gehiago.

6 urtetik beherako haurrei dagokienez (aurreirakurleak dira), adin horretako haurrak dauzkaten lau etxetatik hirutan (% 75,9) familiako norbaitek astean ia hiru ordu ematen ditu haur horiei zerbait irakurtzen. Behin irakurtzen ikasi dutenean, 6-13 urteko haurrak dituzten hamar etxetatik batean bakarrik ez dute irakurtzen, heldu baten konpainian izan edo ez.

Liburuak irakurtzeko ohitura hedatua dago 10-13 urteko haurren artean: % 93,5 ohiko irakurleak dira, % 6,5 noizbehinkako irakurleak, eta inork ere ez du bere burua ez-irakurletzat jotzen (Espainian, oro har, haur horien % 8,8k ez du ezer irakurtzen). Adin horietan ia-ia ez da genero-alderik nabari irakurtzen duten maiztasunean edota intentsitatean, baina zenbait alde nabari dira, ordea, nahiago dituzten gaiak dagokienez.

Etxeak eta liburutegi publikoak ez ezik, ikastetxeak eta hezkuntza-jarduerak ere funtsezko garrantzia dute haurren irakurtzeko ohituretan. Ikastetxe edo institutu gehienetan irakasleek irakurtzera animatzen dituzte, eta irakurketaren inguruko

jarduerak egiten dituzte. Ia guztiek liburutegia dute ikastetxean edo liburutegian (% 13,7k ez du), baina hala eta guztiz ere hamarretik bi ez dira inoiz edo ia inoiz bertaratzen. Bertaratzen direnen artean, hamarretik zazpi (% 69,9) bakarrik joaten da normalean, nahita, eta hamarretik hiru bakarrik joaten dira irakasle baten konpainian, eskola-liburutegia hezkuntza-jardueran ezer gutxi integratu dela adierazten duena.

Irakurrizko ulermena nerabeen artean

Euskal biztanleriaren irakurtzeko ohituren erradiografia labur honen osagarri gisa, *PISA 2009* txostenaren eta *I. eta II. Ebaluazio Txostenen* emaitzak azalduko ditugu jarraian, Eusko Jaurlaritzaren Irakas-sistema Ebaluatu eta Irakurtzeko Erakundeak *PISA 2009* txostenari buruz Euskadirentzat egin dituenak. Txostenek oso informazio baliagarria eman dute 15 urteko ikasleen irakurmenaren inguruan, baita emaitzen eta zenbait aldagaiaren (irakurtzeko motibazioa eta interesa, irakurtzeko hartutako astia, irakurgaien barietatea, euskarri digitaletan irakurtzeko jarduerak eta abar) arteko korrelazioaren inguruan ere.

EAEko nerabeek irakurmenean lortutako errendimendu orokorraren emaitza (494) Espainiako batez bestekoaren (481) gainetik dago, eta irakurketa-emaitzen buruan dauden autonomia-erkidegoen artean dago, baita ELGaren batez bestekoan ere (493), nahiz eta alderik murriztu ez orain hamar urteko ebaluazioaren aldean. EAEn jasotako emaitzak AEBetan, Suedian, Alemanian, Frantzian edo Erresuma Batuan jasotakoen antzekoak dira.

Euskal biztanleriaren % 80 bitarteko mailetan dago (2, 3 eta 4). Ikasleen % 15,2 maila txikienetan dago, eta datu hori positiboa eta itxaropentsua da, ELGaren (% 18,8) baino txikiagoa eta aztertutako herrialde guztietan txikienetako bat delako (zazpi herrialdek bakarrik dute ehuneko txikiagoa maila txikienetan). Nolanahi ere, maila handienetan (5 eta 6) EAEko ikasleen ehunekoa (% 4,5) ez da ELGaren batez bestekora (% 7,6) iristen. Bikaintasun-mailetan emaitzak ez dira hain positiboak izan, beraz, baina hori ohikoa da Espainiaren testuinguruan.

Irakurtzeko ohituretan bezalaxe, irakurrizko ulermenean ere genero-aldeak esanguratsuak izan dira: EAEn, neskek, batez beste, mutilek baino 35 puntu gehiago lortu dituzte (Espainian, 29 puntuko aldea dago, eta ELGaren batez bestekoan, 39 puntuko aldea). Neskak batez bestekoaren gainetik daude irakurketa-azpieskala guztietan, eta informazioa eskuratu eta berreskuratzearekin zerikusia duten jardueretan lortu dituzte puntuazio handienak. Mutilek neskek baino emaitza txikiagoak lortu dituzte azpieskala guztietan, baina testua integratzeko eta interpretatzeko ahalmenean lortu dituzte emaitza onenak. Genero batekoek zein besteok puntuazio hobea atera dute testu etengabeetan testu etenetan baino, eta Espainian oro har eta autonomia-erkidego parte-hartzaileen artean ere hutsune hori nabari da.

Aurreko edizioen aldean (2003 eta 2006) EAEko errendimendu orokorretan nolabaiteko egonkortasuna nabari da, hiru edizioetan ELGAren batez bestekoaren parean egon direlako, maila txikian behera eta ertainetan gora egin badu ere. Aurreko edizioetan ere nabarmendu ziren generoaren araberrako aldeak, baina 2009an mutilek puntuazio hobea lortu dute.

Emaitzek aditzera ematen dutenez, lotura handia dago irakurritzko ulermenaren eta irakurtzeko interes-mailaren, irakurtzeko hartutako astiaren eta irakurgaien barietatearen artean:

- Gustuko dutelako edo ongi pasatzeko irakurtzen duten ikasleek lortu dituzte emaitza handienak, bai euskarri inprimatuetan bai digitaletan; interes txikiena dutenek, aldiz, errendimendu okerragoa izan dute. EAEn, gustuko ez dutelako irakurtzen ez dutenen ehunekoa (% 43,4) handiagoa da Espainian (% 39,4) eta ELGAN (% 34,7) baino. Egunero irakurtzeko astia hartzen dutenen ehunekoa nabarmen handiagoa da (% 20,8 handiagoa) nesken artean mutilen artean baino.
- Irakurtzeko intentsitateari dagokionez, irakurritzko ulermenaren emaitzak hobetzeko garrantzitsuena zera da, egunero-egunero irakurtzeko astia hartzea, irakurtzen emandako denborak eragin zuzenik ez duela aintzat hartuta.
- Irakurleak zenbat eta gai gehiago irakurri eta zenbat eta material gehiago erabili (komikiak, eleberriak, kontakizunak, ez-fikzioa, aldizkariak, kazetariak eta abar), irakurmenean orduan eta errendimendu-maila hobea lortuko du. EAEn, mota guztietako gaiak irakurtzen dituzten ikasleen ehunekoa handiagoa da Espainian baino, baina txikiagoa ELGAren batez bestekoa baino. Irakurtzen dituzten gaien artean mutilen eta nesken artean aldeak nabari badira ere, talde batekoek zein bestekoek askotariko irakurgaiak hautatzen dituzte.

PISA 2009 txostenak honako hau azpimarratzen du: “badaude zenbait faktore, hala nola aurretiko joera, izaera, berdinen presioa eta gizarteratzea, mutilek neskek baino irakurtzeko interes txikiagoa izatea erraztu dezaketenak eta horregatik guk ikasleak, mutilak batik bat, motibatu beharko genituzke gehiago irakur dezaten, jarduera hori atseginago bihurtuz eta ikasleen interesetara moldatuz”.

Familiaren ikasketa-mailaren aldagaiak ere eragiten du ikasleen irakurritzko ulermen mailetan, eta 32 puntuko aldeak nabari dira lehen mailako edo maila gutxiagoko ikasketak egindako gurasoak dituzten ikasleen eta goi-mailako ikasketak egindako gurasoak dituztenen artean. Harreman positiboa egiaztatu da, halaber, ikasleen testuinguru sozioekonomikoaren eta euskarri inprimatu zein digitaletan irakurtzean ematen duten errendimenduaren artean. Gainera,

ikastetxeen testuinguru sozioekonomikoak badu bere eragina ikasleek euskarri digitaletan irakurtzeko ematen duten errendimenduan.

EAEEn, 15 urteko ikasleek euskarri digitaletan irakurtzeko egiten dituzten jardueren indizea txikiagoa da Espainiaren eta ELGAren batez bestekoan baino. 15 urteko ikasleen % 78,9k egunean edo astean zenbait aldiz "txateatzen du"; % 53,4k "e-mailak irakurtzen ditu"; % 43k "informazioa bilatzen du" internet bidez; % 38,3k "hiztegiak" erabiltzen ditu; % 30,4k gutxi gorabehera, "Internet bidez berriak irakurtzen ditu"; % 25,7k "informazio praktikoa bilatzen du"; eta % 14,3k, gutxi gorabehera, "Interneteko eztabaida edo foroetan" parte hartzen du. "Txateatzeko" kategorian, euskal gazteen proportzioa handiagoa da, baina gainerako kategorietan, jarduera bakoitzaren ehunekoak ELGAren ehunekoen berdinak edo txikiagoak dira.

Nolanahi ere, euskarri digitaletan irakurtzeko jarduerak egiteak, antza, ez du lotura argirik *PISA 2009* txostenean irakurrizko ulermenari dagokionez lortutako emaitzekin. Horrelako oso jarduera gutxi egiten dituztenen eta gainerako ikasleen artean bakarrik ezarri da kontuan hartzeko moduko aldea.

EAErentzat eta beste autonomia-erkidegoentzat 15 urteko ikasleen testu digitalen irakurrizko ulermenari buruzko datu espezifikorik eskura ez badugu ere, lehen *PISA-ERA 2009* txostenean Espainiako lurralde osoari dagokionez argitaratutako emaitza orokorrek zenbait informazio interesgarri eskaini dituzte. Txosten horren arabera, ikasleek euskarri digitaletan irakurtzean ematen duten errendimendua Espainian (475) pixka bat txikiagoa da paperean irakurtzean ematen dutena (481) baino. Oraindik ere neskek mutilek baino puntuazio hobekia lortzen dituzte testu digitalen irakurrizko ulermenean, baina puntuazio okerragoak lortu dituzte testu inprimatuei dagokienez, eta, horren ondorioz, mutilen eta nesken arteko aldeak murriztu dira.

Txostenak agerian utzi duenez, testu elektronikoak irakurtzean ongi ulertzeko, eraginkortasunez nabigatu behar da, garrantzizko informazioa bereizi behar da, eskuragarri dagoen denbora kontrolatu behar da eta pentsamendu kritikoari jarraiki jardun behar da.

Informazioa on line bilatzen zenbat eta gehiago jardun, euskarri digitaletan irakurtzeko errendimendua orduan eta hobea izango da. On line gizarte-jarduerak, ordea, oso lotura txikia eta ez-lineala dute euskarri digitaletan irakurtzean emandako errendimenduekin.

Gainerakoan, irakurrizko ulermena, ikaskuntza-prozesu osoari eragiten dion zeharkako gaia den heinean, funtsezkoa da EAEko hainbat ikastetxeren hobekuntza-planetan, eta, ildo horretan, Euskadiko Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroek (Berritzeguneak) zenbait orientazio didaktiko landu dituzte eta zenbait ekintza eta jarduera iradoki,

hobekuntza-planen aholkulariek ikastetxeetara eramaten dituztenak⁵. Gainera, irakurrizko ulermena hobetzeko zer egin daitekeen adieraziko duen dokumentu bat lantzen ari dira berritzeguneak, datozen hilabeteetan ikastetxeen esku egongo dena.

LIBURUTEGIAK ETA IRAKURKETA PUBLIKOKO SAREA ⁶

Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legeak honako hau ezarri du: "irakurketa publikoko sarea oinarrizko eta ezinbesteko ekipamendua da informazioaren eta ezagutzaren gizartearen gizarte- eta kultura-garapenerako". Zalantzarik gabe, hezkuntza-sistemaren ostean, liburutegiak eta bereziki irakurketa publikoko sarea dira Administrazioak, maila guztietan, gizartean irakurtzeko ohiturak garatzeko gauzatzen duen jardun esanguratsuena.

Legeak dioena ez da asmo-adierazpen soila. Izan ere, liburutegiak, eta bereziki liburutegi publikoak, ia biztanleria osoa hartzen duten euskal udalerrri gehienetan daude indarrean. Sare horrek gutxi gorabehera zenbaterainoko ahalmena duen ikusteko, kontuan hartu 2009an liburutegi publikoek bakarrik 6 milioi bisita inguru izan zituztela, museoek jasotakoen bikoitza baino gehiago, ia bederatzi aldiz gehiago antzokietara bertaratu zirenak baino, eta 650.000 bisitari gehiago 2008an zinema-aretoek izan zituzten ikusleak baino.

2008ko abenduaren 31n, EIN institutuaren estatistika ofizialaren arabera, eskola-liburutegiak aintzat hartzen ez dituenak, EAEn 323 liburutegi eta 426 zerbitzugune zeuden guztira. Liburutegi horiek honako multzo hauetan sailkatu ziren: goi-mailako irakaskuntzako erakundeetako liburutegiak (% 4,0); erabiltzaile talde espezifikoentzat espezializatu gabeko liburutegiak (% 2,5); espezializatutako liburutegiak (% 28,8), horien artean ondare-liburutegien garrantzia azpimarratu behar dela; eta, azkenean, liburutegi publikoak, guztizkoaren ia bi heren direnak (%

⁵ *Lengua castellana y literatura. Orientaciones didácticas*. Honako honetan eskuragarri: http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/docs/orientaciones/lengua_castellana.pdf

⁶ Iturri nagusiak: EIN: *Estadística de bibliotecas*; honako honetan eskuragarri: <http://www.ine.es/jaxi/menu.do?type=pcaxis&path=%2Ft12%2Fp403&file=inebase&L=0>. MCU, *Las bibliotecas públicas españolas en cifras*, <http://www.mcu.es/bibliotecas/MC/EBP/index.html>. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila EAeko irakurketa publikoaren mapa, http://www.euskadi.net/r33-2288/es/contenidos/informacion/publi_biblio/es_pub_bib/adjuntos/es_Mapa_lectura_EAE.pdf. Beste iturri osagarri batzuk: Kulturaren Euskal Behatokia, *Kultura-ohiturei, -praktikei- eta -kontsumoari buruzko estatistika Euskal Autonomia Erkidegoan, 2007-2008*; honako honetan eskuragarri: http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19123/es/contenidos/informacion/est_hp/es_hp_cae/hp_cae.html.

Euskadiko Editoreen Elkarteak, *Liburuak irakurtzeko eta erosteko ohiturak Euskal Autonomia Erkidegoan. 2009. urtea*; honako honetan eskuragarri: http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19803/es/contenidos/informacion/keb_publicaciones/es_publicac/adjuntos/HLCL%20C.A.%20VASCA%202009_V2.pdf.

64,7), eta, 11/2007 *Legearen* arabera, honako eginkizun hau bete behar dutenak: "herritarren aukera-berdintasuna bultzatu behar dute, norik bere askatasunetik aukera izan dezan bere burua lantzeko, literatura- eta kultura-interesak gauzatzeko, ezaupideak etengabe areagotzeko, pertsona edo herritar gisa dituen gaitasunak hobetzeko, nazioarteko errealitateetara iristeko eta bizitza osoan zehar ikasteko".

Hortaz, liburutegi publikoek osatzen dute EAEko liburutegien multzo nagusia, ez bakarrik jendearentzat irekitako establezimendu kopuruarengatik, baita mota guztietako herritarrei zerbitzua ematen dietelako eta irakurtzeko praktikak mantendu eta garatzeko funtsezko euskarria direlako ere. Horren adierazgarri dugu, batetik, 700.000 herritar liburutegi publiko baten txartelaren jabe direla, eta, bestetik, 2008an liburutegi publikoek erabiltzaileen esku 3 milioi dokumentu baino gehiago jarri zituztela (EAEko liburutegiek guztira egindako maileguren % 84,3).

EAEko hamar udalerritatik zortzik liburutegi publikoko zerbitzua dute (199 udalerrri, % 79,3). 52 udalerrrik ez dute zerbitzurik (21 Araban, 20 Bizkaian eta 11k Gipuzkoan), eta udalerrri horietan 29.060 herritar bizi dira guztira (EAEko biztanleriaren % 1,3: 113.882 Araban, 10.725 Bizkaian eta 4.453 Gipuzkoan, hurrenez hurren). Batez beste, EAEko zerbitzugune bakoitzak 7.921 biztanleri eskaini behar die arreta, Espainiako batez bestekoaren (9.280) gainetik. Probintziaz probintziako aldeak ez dira handiak (7.073 Gipuzkoan eta 8.546 Bizkaian, hurrenez hurren), baina bai, ordea, udalerrriaren tamainaren arabera aldeak: 2004an Bilbok zerbitzugune bakoitzeko 20.000 biztanle baino gehiago zituen, eta Gasteizek, berriz, 15.000 baino gehiago.

Nolanahi ere, aipatzekoa da zerbitzugune horien ia herenak (% 31,7) 100 metro karratu baino gutxiago dituela, eta edozein zerbitzugunek azalera hori gainditu beharko lukeela, 2007ko *Mapan* ezarritako estandarren arabera.

Liburutegi publikoen informazio-baliabideei dagokienez, adierazleak IFLA estandarren barnean daude eta Espainiakoak baino hobeak dira, Gipuzkoako probintziaren hornidurei esker bereziki. Bizkaian dituzte adierazlerik txikiak, eta gainera dibertsifikazio-maila txikiagoa da bertan. Gainera, liburu-ehuneko handiagoa dute bildumaren guztizkoaren aldean, eta biztanle bakoitzeko PCen hornidura txikiagoa da, biztanle bakoitzeko mailegu kopuru txikiagoa dakarrena.

Liburutegi publikoek eskaintzen dituzten zerbitzuei dagokienez, egoera ez da hain ona, 2009ko datuen arabera. EAEko hamar liburutegi publikotatik hiruk ez du ikus-entzunezkoen mailegu-zerbitzurik, ezta kultura-jardueren programaziorik edota interneterako sarbide publikorik ere. Ia erdiak ez du soinu-materialen edo material elektrikoaren mailegu-zerbitzurik eskaintzen, ezta liburutegi arteko mailegu-zerbitzurik ere. Erdiaren baino gehiagoren katalogoa ez dago interneten eskuragarri, ia bi herenek ez dute aldizkaririk maileguz ematen, eta lautik batek bakarrik du web-orririk. Indize horietan, Bizkaiko probintzia da betiere okerren ageri dena.

EAEko liburutegi publikoetako langile-horniduraren eta langile horien arretaren eraginpeko biztanleriaren arteko erlazioa aztertzean, adierazleak Espainiako batez bestekotik gertu dabiltzala ohartzen gara. Nolanahi ere, badira kezkatzeko moduko zenbait datu. Lehenik eta behin, zerbitzugune bakoitzeko batez besteko hornidura Espainiakoa baino txikiagoa da (1,8 enplegatu lanaldi osoan, Espainiako 2,1 langileen aldean), ezbairik gabe lanaldi partzialeko kontratua duten enplegatuen ehunekoa urria dela adierazten duena. Baina gainera, administrazio-unitateen bi herenetan baino gehiagotan (edo zerbitzuguneen laurdenean) ez dute liburuzain profesionalik, eta horren eraginez, liburutegi horiek kudeatzeko erantzukizuna liburutegiko laguntzaileen esku uzten da. Datu horiek, EAEko liburutegi publikoetako langileen prestakuntza-maila urria islatu baino gehiago, hainbat liburuzainen lan-kategoria haien eginkizun profesionalen azpian dagoela ematen dute aditzera.

Liburutegi publikoetan biztanle bakoitzeko egindako gastua Espainiako handienetako bat da (Gaztela-Mantxaren eta Kataluniaren atzetik), eta, kapituluz kapituluko banaketari jarraiki, langile-gastuak gainkargatzeko (Arabaren bereziki, % 76,6arekin) eta erosketetarako proportzioa murrizteko joera nabari da.

Baina beste autonomia-erkidegoekiko eta Espainiarekiko aldeak, liburutegi publikoek sortutako gastu arrunten finantziazioan nabari dira bereziki. Eusko Jaurlaritzaren ekarpena (% 3, gutxi gorabehera, azken urteetan), ehunekotan txikiena da autonomia-gobernu guztien artean, eta Espainiako batez bestekotik (% 32,2) oso urrun dago. Aitzitik, udalak dira zerbitzuaren finantziazioaren ia ardurua osoa beren gain hartzen dutenak (% 92,0 2009an EAEn), Arabaren salbuespen bakarrarekin, izan ere, Arabaren banaketak antz handiagoa du Espainian ohikoa denarekin, baina Arabaren kasuan Aldundia da (eta ez autonomia-gobernua) gastu korronteen zati handi bat finantzatzen duena (% 38,3 2009an), ezbairik gabe Gasteizko estatu-titulartasuneko probintzia-liburutegia kudeatu eta mantentzearen alde hartutako konpromisoarekin bat etorriz.

EAEko herritarren herena liburutegi publiko baten erabiltzaile-txartelaren jabe dira (% 33,2; Espainian % 27,2 dira batez beste). 2009an 5,76 milioi bisita jaso zituzten, 2,68 bisita biztanleko (3,42 Gipuzkoan, 3,02 Araban eta 2,13 Bizkaian, hurrenez hurren), Espainiako batez bestekoaren gaineratik, baina urrun, nolahi ere, autonomia-erkidegoen sailkapenaren lehen tokietatik, zortzigarren tokia hartuz.

2009an EAEko liburutegi publikoek guztira 3,23 milioi dokumentu eman zizkieten maileguz beren erabiltzaileei; horietatik bi heren liburuak izan ziren, eta gainerakoak dokumentuak, ikus-entzunezkoak, soinuzkoak edo elektronikoak. Biztanle bakoitzeko mailegu *ratioa* 1,48 izan zen EAEn (1,28 Espainian). Gipuzkoan (1,96) eta Araban (1,65) indize hori gaintitu dute, baina Bizkaia (1,15) Espainiako batez bestekoaren azpitik ere geratu da. Horrela argi geratu da informazio-baliabideek hiru probintzietan dibertsifikazio-maila desberdinak dituztela, eta oro

har, zerbitzuaren eskaintzaren zabaltasunean eta kalitatean egiaztatutako aldeak indarrean daudela.

Eskola-liburutegiei dagokienez, ez dugu estatistikarik edo bestelako iturririk, eta hortaz ezinezkoa da guretzat liburutegi horiek gaur egun Euskadin zertan diren adieraztea. *Euskadiko Liburutegiei buruzko 11/2007 Legeari jarraiki, eskola- eta unibertsitate-liburutegiak dira* Euskadiko Liburutegi Sistemaren osagarri, eta liburutegi horiek Euskadiko irakurketa publikoko sarean integrazteko aukera badagoela ere adierazten du, nahiz eta, guk dakigunez behintzat, integrazio horren aldeko benetako urratsik egin ez den orain artean.

2002ko azterlan baten arabera⁷, EAEko ikastetxe publikoen % 89k liburutegi-zerbitzuak eskaintzen zituen, eta, liburutegi horietan 100 m²-ko azalera gainditzen zutenak oso gutxi baziren ere, % 64k 1.000 liburukitik gorako bilduma zuen. 2004an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak "Las bibliotecas escolares en España. Análisis y recomendaciones"⁸ azterlanerako emandako datuen arabera, "ia ikastetxe guztiek liburutegia dute eta autonomiaz antolatzen dute, beren baliabide eta premien arabera eta zerbitzuari buruz bakoitzak duen ikusmoldearen eta egiten duen balorazioaren arabera". 2006an, *Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak* ezarri zuen ikastetxe guztiek nahitaez eskola-liburutegia eduki behar zutela, eta honako hau azpimarratu zuen: "eskola-liburutegiek irakurzaletasuna sustatzen lagunduko dute, eta ikasleei informazioa eta beste baliabide batzuk eskuratzeko erraztasunak emango dizkiete, gainerako arlo eta gaiak ikasteko eta arlo eta gai horiek kritikoki erabiltzeko aukera izan dezaten". Hortaz, gaur egun EAEko ikastetxe guztiek⁹ eskola-liburutegia dutela eta ekipamendu eta zerbitzuen kalitatea hobetu dutela pentsa dezakegu. Zenbait iturri osagarriren arabera, eskola-liburutegiak kudeatzeko ABIES 2.0 programa hedatu da; eskola-liburutegi horietatik proiektu eta programa ugari jarri dira abian irakurzaletasuna sustatzeko; eta liburutegi horietako zerbitzuek aurrerapen handiak egin dituzte ACEX programari (Eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa, 1995an hasi zena eta 228/2002 Errege Dekretuak arautzen duena) esker. Horren arabera, irakasle-liburuzainaren figura garatu da, zerbitzu-eginkizunen esparruan liburutegiari atxikia dagoena, erabateko dedikazioarekin eta lanaldi osoan.

Kultura- edo irakurketa-ohiturei buruzko azterlanek ere informazio osagarri interesgarria eskaintzen dute liburutegietako erabileren inguruan. ...*ohiturak* azterlanaren arabera, EAEko 14 urteko edo urte gehiagoko herritarren % 28,1 liburutegi batera bertaratu zen 2009an (% 27,9 Espainian). Irakurleen artean

⁷ Ana Arregui: *Euskadiko eskola-liburutegien egoerari buruzko txostena*. Gasteiz: Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza, 2002. Honako honetan eskuragarri: http://212.142.143.125/edukia/liburutegiak/dokumentuak/informe_bibliesc.doc

⁸ *Las bibliotecas escolares en España. Análisis y recomendaciones*. Madril: FGSR, 2005. Honako honetan eskuragarri: http://www.fundaciongsr.es/wfuns/activos/texto/wfuns_informacion_0220-x3mT0LqYnEo4MvD.pdf

⁹ 2009-2010 ikasturtean EAEn 1.164 ikastetxe zeuden indarrean; horietatik 789 publikoak ziren eta 375 pribatuak, hurrenez hurren. Guztira 369.287 ikaslek ikasten zuten ikastetxe horietan. Eta ikasle horiek 64.433 ordenagailu zituzten eskura.

ehuneko hori % 40,4ra igo da Bertaratu zirenen hamarretik bederatzik liburutegi publikoetara jo zuten, eta bertaratzehuneko handiagoak erregistratu ziren Espainian baino horrelako liburutegietarako, eta bertaratzehuneko txikiagoak unibertsitate- eta eskola-liburutegietarako, hurrenez hurren.

Irakurketarekin gertatzen den bezala, liburutegien erabilera alde handiak nabari dira adinaren arabera, eta ez hain handiak generoaren arabera. Adierazi dutenaren arabera, 10-13 urteko hamar haurretatik zortzi bertaratu da liburutegietara, 14-24 urteko hamar nerabe edo gaztetatik ia sei (% 57,9), eta 25-44 urte arteko hiru heldutatik bat, gutxi gorabehera. 45 urtetik gorakoan artean, berriz, liburutegietara bertaratzeko direnen ehunekoak nabarmen jaitsi dira Adina edozein izanik ere, emakumeak neurri handiagoan bertaratzeko dira gizonak baino, hamar puntuko aldea nabari dela. Goi-mailako ikasketak egin dituzten pertsonak (% 56,5 erdi-mailako unibertsitarioen artean) eta ikasleak (% 59,7) ere neurri handiagoan bertaratzeko dira. Habitataren arabera, 10.001-50.000 biztanleko udalerrietan erregistratu dira liburutegietara bertaratzeko herritarren ehuneko handienak (% 32,5), eta hiru lurralde historikoen artean ere alde handiak nabari dira: Gipuzkoa dago buruan (% 39,8; 50,4% irakurleen artean), Arabari 10 puntutik gorako aldea (% 28,8; % 47,6 irakurleen artean) eta Bizkaiari ia 20 puntuko aldea (% 21,9; % 33,6 irakurleen artean) ateratzen diela, hurrenez hurren.

Liburutegietara jotzen dutenek, besteak beste, liburuak maileguz hartzen edo itzultzen dituzte, liburuak kontsultatzen dituzte eta liburutegian ikasi edota lanak egiten dituzte. Erabiltzaileen % 13k ikus-entzunezkoen baliabideak eta internet erabiltzen eta kontsultatzen ditu liburutegietan. Hamar irakurletatik batek (% 9,4) liburutegian maileguz hartu du irakurritako azken liburua, Espainiako batez bestekoaren (% 5,3) gainetik nabarmen.

Bertaratu ez zirenen % 46,6k adierazi du liburutegiak ez dituztela gustuko edota ez dutela bertaratzeko ohiturarik. % 35,0k liburutegietara joateko astirik ez duela adierazi du, eta % 13,5ek, berriz, liburuak beste era batera lortzen dituela. ... *estatistikaren* arabera, liburutegietara jotzen dutenak oro har nahiko gustura daude eskaintako zerbitzuarekin, batez besteko puntuazioa 7,8 izan delako Otik 10era bitarteko eskalan. Balorazio horretan alde handirik ez da nabari aldagaien arabera, baina nabarmentzekoa da Donostiako herritarrek oso puntuazio handia eman dutela (8,3).

IRAKURZALETASUNA ETA IKT-AK EAE-N ¹⁰

EAEko 16-74 urteko herritarrek 2010ea IKTak nola erabili dituzten aztertzean, Espainian atzemandakoaren antzeko joerak ageri dira, indizeak pixka bat handiagoak izan badira ere. Adina, diru-sarreraren maila, etxeen osaera, ikasketamaila eta lan-egoera dira IKTen erabileran gehien eragiten duten aldagaiak. Habitat motaren aldagaia adierazgarria da Espainian IKTen erabilera aztertzean eta IKTak zenbateraino sartu diren neurtzean alde esanguratsuak badaudela adierazten duen neurrian; EAEn, ordea, aldagai horren arabera aldeak urriak izan dira landako eta hiriko inguruneen artean, baina kontuan hartzekoak hiru lurralde historikoen artean.

Espainiako zein Euskadiko etxeetan, telebista eta telefonia dira IKTen alorreko ekipamendu ohikoenak. Telebista da gehien hedatutako ekipamendua, ia etxeen % 100ean ezarri baitute, eta, jarraian, telefonia mugikorra (euskal herritarren % 95,2) eta finkoa (% 89,8).

Ordenagailuarekin zerikusia duten ekipamenduak nabarmen hazi dira azken hamarkadan: 2000an, % 39,1ek zuen ordenagailua 15 urteko eta urte gehiagoko herritarren artean, eta 2010erako ehunekoak % 70,2ra igo zen. Ordenagailu eramangarrien gorakadak zeresan handia izan du igoera horretan, 2003an % 3,9 izatetik 2010an % 41 izatera igaro baitira (% 49,1ek mahai gaineko ordenagailua dauka). Gainera, euskal etxeen % 54,9k interneterako konexioak ditu eta % 53,5ek posta elektronikoa ezarri du, hain zuzen ere internet eskuragarri dutenen % 97,4k. Eta, *...ohiturei buruzko estatistikaren* arabera, 2009rako jada konexio horietako gehienak (% 72,8) ADSL bidezkoak ziren.

Etxebizitzan interneterako sarbiderik ez dutenen % 36,1ek zenbait arrazoi aipatu ditu horretarako, baina gehienek ez dutela nahi, ez dutela behar edo internet nola erabili ez dakitela adierazi dute.

¹⁰ Iturriak: EIN, *Encuesta sobre equipamiento y uso de tecnologías de la información y comunicación en los hogares 2010*,

<http://www.ine.es/jaxi/menu.do?type=pcaxis&path=%2Ft25%2Fp450&file=inebase&L=0>. Euso Jaurilaritza, *Euskadi Informazio Gizartean Plana. Euskadiko Agenda Digitala 2010*; honako honetan eskuragarri:

<http://www.euskadi.net/eeuskadi/new/es/adjuntos/PESI2010c.pdf>. Kulturaren Euskal Behatokia, *Gazteak, kultura eta teknologia berriak*; honako honetan eskuragarri: http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19803/es/contenidos/informacion/keb_publicaciones_otros_inform/es_publicac/adjuntos/INFORME-OVC-TURIN-ES.pdf. Kulturaren Euskal Behatokia, *Kultura-ohiturei, -praktikei- eta -kontsumoari buruzko estatistika Euskal Autonomia Erkidegoan, 2007-2008*; honako honetan eskuragarri:

http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19479/es/contenidos/informacion/est_hp/es_hp_cae/hp_cae.html. Euskadiko Editoreen Elkarteak, *Liburuak irakurtzeko eta erosteko ohiturak Euskal Autonomia Erkidegoan*.

2009; honako honetan eskuragarri: http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19803/es/contenidos/informacion/keb_publicaciones/es_publicac/adjuntos/HLCL%20C.A.%20VASCA%202009_V2.pdf EUSTAT Euskal Estatistika Erakundea, *Informazioaren Gizartearen panorama Euskadin 2009-2010*; honako honetan eskuragarri: http://www.eustat.es/elementos/ele0007000/inf0007025_c.pdf

Oro har, nola Espainian hala EAEn, ekipamendu teknologikoak azkar berri dira, eta eramangarritasun eta mugikortasun handiagoa ahalbidetzen duten teknologiek gora egin dute, bai eramangarrien ehunekoari bai gailu mugikorren (PDA, *pocket* PCa eta abar) igoerari dagokienez, 2007an % 1,9 izatetik 2010ean % 5,5 izatera igaro direnak. Gainera, gizarteko belaunaldi eta sektore guztien eguneroko bizitzan teknologien erabilera nolabait normalizatu dela esan dezakegu.

Espainiako etxeetan bezala, EAeko IKTen alorreko ekipamenduak askoz ere ugariagoak dira kide asko dituzten familien artean, bereziki seme-alabak dituzten familien artean. Diru-sarreraren mailaren arabera aldeak nabarmen txikiagoak dira EAEn Espainiako gainerako autonomia-erkidegoetan baino, baina oraindik ere aldeak badaudela ikus daiteke. Alde horiek txikiak dira, edo alderik ez dago, telebistari edo faxari dagokienez, baina handiagoak dira mahai gaineko ordenagailu eta eramangarriei dagokienez, baita musika-ekipoari eta DVD ekipoari dagokienez ere.

Internet eskuragarri duten gehienak 35 urtetik beherako gazteak dira, ikasleak edota goi- edo erdi-mailako ikasketak dituztenak. Interneterako konexiorik ez dutenak, aldiz, pertsona bakartuak izan ohi dira, 55 urtetik gorakoak, maila txikiagoko ikasketak dituztenak eta langabezian edo lanik egin gabe daudenak.

Internet maiz (egunero edo astero) erabiltzen dutenen artean, goi mailako ikasketak dituzten (% 87,1) eta 15-54 urteko adina duten pertsonak aurkitzen ditugu normalean; 55 urtetik gorakoak, aldiz, oso gutxi dira (% 11,6), eta horien artean daude internet erabiltzen ez dutenen talde handiena (% 71,3). Lehen mailako ikasketak dituzten edo maila horretara iristen ez direnen % 7,2 bakarrik dira ohiko erabiltzaileak; % 86,2k, aldiz, ez du inoiz ordenagailu bat erabili. Azken urte hauetan ohiko erabiltzaileen taldea da gehien hazten ari dena; noizbehinkako erabilerak egiten dituztenen kopurua, aldiz, behera egiten ari da. Informatika-ikastaroetara bertaratuz teknologiarekiko interesa erakusten dutenen kopurua ere nabarmen igotzen ari da.

Generoaren arabera, gizonen aldeko aldeak nabari dira, baina ez dira oso handiak adineko erabiltzaileen eta ohiko erabiltzaileen artean izan ezik. Emakumeen % 42,9k eta gizonen % 31,4k ez du ordenagailua erabiltzen, hurrenez hurren.

Interneti ematen dioten erabileraz galdetuta, gehien-gehienek (% 92,2), edozein adin-taldetan izanik ere, aisia-arrazoiak aipatu dituzte. Ia erabiltzaileen erdiak (% 43,5) arrazoi profesionalak aipatu ditu, goi- edo erdi-mailako ikasketak izanik jardunean dauden artean, batik bat. Bostenak baino pixka bat gehiagok (% 21,6) arrazoi akademikoak aipatu ditu, eta gehien-gehienak ikasle gazteak edo helduak dira.

...*ohiturak* izeneko azterlanak adierazi eta ...*Informazioaren Gizartearen panorama* izenekoak berretsi duenez, internet bidez nabigatzea gero eta garrantzi handiagoa

hartzen ari da euskal herritarren aisia-ohituretan: EAeko 14 urteko eta urte gehiagoko herritarrek azken hiru hilabeteetan egindako jarduera ohikoenetako bat da (% 59), lagun eta senitartekoei egindako bisiten (% 88,2) eta afaltzeko irtenaldien (% 67,5) azpitik bakarrik. Espainian bezala, internet erabiltzean EAeko biztanleriak informazioa bilatzeari eta nabigazioari (% 93,9) ematen dio lehentasuna, baita posta elektronikoa erabiltzeari (% 84,7) eta prentsa eta aldizkari digitalak irakurtzeari ere (% 61,0). Neurri txikiagoan, fitxategiak deskargatzeko (% 45,7), lineako zerbitzuak erabiltzeko (% 40,5) eta txateatzeko (% 28,4) erabiltzen dute. Nolanahi ere esan beharra dago interneten zerbitzu aurreratuak (banka elektronikoa, e-administrazioa eta abar) oraindik ere ezer gutxi hedatu direla.

EAeko biztanleriaren % 99,4k gaztelaniaz nabigatzen du, % 22,6k euskaraz, % 22,1ek ingelesez eta % 2,3k frantsesez, hurrenez hurren.

Irakurzaletasuna eta internet

Beste herrialde eta autonomia-erkidego batzuetan bezala, EAEn ere erlazio estua nabari da irakurtzeko ohituren eta ordenagailua eta internet eduki eta erabiltzearen artean 14 urteko eta urte gehiagoko herritarren artean, irakurleak dira internet gehien (% 69,9 2009an; % 40,5 irakurtzen ez dutenen artean) eta maiztasun handienarekin (irakurleen % 55,8k egunero edo ia egunero erabiltzen du, irakurtzen ez dutenen % 27,6aren aldean) irakurtzen dutenak.

% 61,0k prentsa eta aldizkari digitalak irakurtzen ditu, eta alde txikiak ageri dira irakurleen (% 62,0) eta irakurtzen ez dutenen (% 56,9) artean, prentsako edo paperezko irakurketarekin gertatzen den bezala. % 6,8k literatura irakurri eta deskargatzen du interneten, eta gehien-gehienek edukiak pantailan irakurtzen dituzte zuzenean. % 34,9k literatura-gaiei edo -liburuei buruzko informazioa bilatzen du, eta alor horretan alde handia nabari da irakurleen (% 41,9) eta irakurtzen ez dutenen (% 6,9) artean. Bestetik, % 3,5ek literatura-gaiei edo literatura-liburuei buruzko blogak edo foroak irakurtzen ditu, eta % 0,4k bakarrik irakurtzen ez dutenen artean.

EAEn Internet bidez erosteko joera duten herritarrek % 37,3 dira, 8 puntu espainolen batez bestekoaren (% 29,3) gaineratik. Merkataritza elektronikoaren maila txiki horrekin bat etorritik, internet bidez liburuak erosi ohi dituzten irakurleak % 5,4 baino ez da, baina nolahi ere aurreko urteetako ehunekoak (% 1,6 2005ean eta % 2,6 2007an, hurrenez hurren) gainditu dituzte.

Horren osagarri, gauza jakina da, ...*estatistikan* bildutako datuei esker, euskal herritarren % 39,1ek kultura-edukiak kontsultatzeko jotzen duela internetera, eta erabilera hori bereziki gizonen (% 44,3) —emakumeek (% 34,2) baino gehiago—, gazteenek (15-34 urtekoak) eta goi-mailako ikasketak dituzten herritarrek egiten

dutela, ikasketa-mailaren arabera alde handiak nabari direla. Gainera, liburuen eta beste era bateko euskarrien irakurketarekin gertatzen den bezala, ohitura horiek gazteen artean hedatu dira batik bat (15-34 urteko hiru gaztetatik bi), eta ez dira hain ohikoak ikasketa-maila txikiagoa dutenen (% 7,0 ikasketarik ez dutenen edo lehen mailako ikasketak baino ez dituztenen artean) eta herri txikietan bizi direnen artean. Ele bakarreko eta ele anitzeko herritarren artean oso alde urriak ageri dira erabilera horri dagokionez.

Kultura-edukiak eskuratzen dituzten gehienek kultura-gaiei buruzko webguneak kontsultatzen dituzte (% 63,6), egunkariak irakurtzen dituzte (% 45,9), Interneten musika entzuten dute (% 40,1) eta sarrerak erosten dituzte (% 35,6). Neurri txikiagoan, dokumentazio-zentroak kontsultatzen dituzte (% 20,4), bideo edo pelikulak ikusten dituzte (% 28,8), kultura-foroetan parte hartzen dute (% 9,3), eta musika (% 8,6) eta pelikulak (% 4,1) erosten dituzte.

Gazteak eta IKTak

Teknologiaren erabilera eta gazteak estu lotuta daude, aztertutako estatistika guztiek erakusten dutenez; izan ere, gazteek neurri handi samarrean erabiltzen dituzte teknologiak: 15-35 urteko biztanleriaren ia erdiak (% 49,8) Internet astean ordubetetik zazpi ordura bitarte erabiltzen duela adierazi du; % 9,2k, berriz, astean 20 ordutik gora erabiltzen duela dio.

Gazteek elkarren artean komunikatzeko eta aisia-arrazoiak direla medio erabiltzen dute sarea batik bat, hau da, harremanetan jartzeko, ongi pasatzeko eta informatzeko, baina baita ikasteko eta prestatzeko ere. Beren *offline* bizitzan, harremanak, kontsumoa eta ikasketak dira nagusi, eta sarea horren guztiaren *online* luzapen moduko bat da. Nahi duten informazioa berehala jasotzera eta nabigazio hipertestuarean jardutera ohituta daude, eta kontsumitzaile aktiboak eta eduki-sortzaileak dira. Mugikortasunari gero eta garrantzi handiagoa ematen diote, gailu gehiago (mugikorra, mp3, *ipodak eta abar*) erabiltzen dituzte eta eramangarriari erabilera ludikoagoa ematen diote mahai gaineko ordenagailuari baino.

Gazteen eta 50 urtetik gorako helduen artean alde handia nabari da Interneten erabilerari dagokionez: aldeak izugarriak dira, esaterako, internet aisia-kontsumorako, hala nola musika entzuteko edo pelikulak ikusteko, erabiltzean, baina baita komunikazio- edo mezularitza-zerbitzuetan eta gizarte-sareetan ere, belaunaldi gazteenek ordenagailuak edo batez ere gailu mugikorrak neurri handi batean erabiltzen dituztelako lagunekin harremanetan jartzeko, argazkiak elkartrukatzeko edota iritziak eta interesak adierazteko.

EUSKARAREN ERABILERA EAE-N ¹¹

2010ean, Eusko Jaurlaritzak egindako *Euskara: erabilera, jarrerak eta politikak* azterlanaren arabera, EAEn bizi diren 15 urteko edo urte gehiagoko herritarren % 45ek euskara ongi edo oso ongi ulertzen du, % 37 elebiduntzat jo daiteke (ongi edo oso ongi hitz egiten dute), % 40k euskaraz ongi edo nahikoa ongi irakurtzen du, eta % 35ek euskaraz zailtasunik gabe idazten du.

Euskararen erabilera-mailetan, alde nagusiak adinaren arabera nabari dira, alderantzizko proportzionaltasuneko erlazioan, nola ulermenari eta mintzamenari hala irakurmenari eta idazmenari dagokienez. 30 urtetik beherako biztanleriaren artean jaso dira euskaraz ongi edo oso ongi idazten, irakurtzen, hitz egiten edo ulertzen duten pertsonen ehuneko handienak, kasu guztietan biztanleriaren erdia gainditu dutela, baita hizkuntza horretan tutik ere idazten, irakurtzen, hitz egiten eta ulertzen ez dutenen ehuneko handienak ere. 30 urtetik aurrera, jarduera horiek euskaraz egin ditzaketenen ehunekoa nabarmen jaisten da, eta 46 urtetik aurrera –eta, batez ere, 65 urtetik aurrera– erregistratu dira proportziorik handienak.

Probintziaz probintzia ere alde esanguratsuak aurkitu ditugu euskararen ezagutzari eta erabilerari dagokienez. Gipuzkoan jaso dira euskaraz dakitenen ehuneko zabalena, nola ulermenari eta mintzamenari hala irakurmenari eta mintzamenari dagokienez (biztanleriaren erdia baino gehiago, idazmenari dagokionez –% 44– izan ezik). Arabarrak dira neurri txikienean euskaraz ulertzen, hitz egiten, irakurtzen eta idazten dutenak (% 30etik behera mintzamenean, irakurmenean eta idazmenean). Bizkaia bitarteko toki batean dago, baina biztanleriaren % 40 gainditu gabe aztertutako item guztietan.

Gizonen eta emakumeen artean oso alde txikiak ageri dira euskararen ulermenari eta mintzamenari dagokienez. Irakurmenean eta idazmenean aldeak pixka bat handiagoak izan dira, baina estatistikei begiratuta ez dira esanguratsuak, ezein kasutan.

¹¹ Iturriak: Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariak, *Euskara: erabilera, jarrerak, politikak 2011*; honako honetan eskuragarri: http://www.lehendakariak.ejgv.euskadi.net/r48-14452/es/contenidos/informe_estudio/o_10tef3_euskera/es_10tef3/adjuntos/10tef3_euskera_es.pdf. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, 2006. IV. *Mapa soziolinguistikoa*; honako honetan eskuragarri: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/es_6092/adjuntos/MAPAcas.pdf. Euskadiko Editoreen Elkarteak, *Liburuak irakurtzeko eta erosteko ohiturak Euskal Autonomia Erkidegoan. 2009*; honako honetan eskuragarri: http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19803/es/contenidos/informacion/keb_publicaciones/es_publicac/adjuntos/HLCL%20C.A.%20VASCA%202009_V2.pdf. Kulturaren Euskal Behatokia, *Kultura-ohiturei, -praktikei- eta -kontsumoari buruzko estatistika Euskal Autonomia Erkidegoan, 2007-2008*; honako honetan eskuragarri: http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19123/es/contenidos/informacion/est_hp/es_hp_cae/hp_cae.html.

EAEEn, familian (% 68), lantokian edo ikasketa-zentroan (% 63) eta lagunekin (% 69) komunikatzeko gaztelania erabiltzen da batik bat, beti edo ia beti. Bi hizkuntzak neurri berean erabiltzen dituztela diotenen ehunekoak ez dira % 10era iristen ezin kasutan. Eta gainerako guztiek, % 20aren azpitik betiere, euskara beti edo ia beti erabiltzen dute.

15 urteko edo urte gehiagoko herritarren % 54k euskara euskal herritarren hizkuntza nagusia dela uste du. Batez besteko hori % 61 da Gipuzkoan eta % 77 15-17 urteko biztanlerian, eta gainerako aldagaietan ez da inoiz batez bestekoa gainditu. % 34k uste du euskara dela euskal herritarren hizkuntzetako bat, ez euskal herritarren hizkuntza bakarra. Araban hori uste dutenak % 45 dira, eta 18-45 urteko herritarren artean ere proportzioa handiagoa da. Gainera, 15 urteko eta urte gehiagoko biztanleriaren % 77k uste du hurrek euskaraz ikastea ezinbestekoa dela.

Aldez aurretik adierazi dugunez, astialdian liburuak irakurri ohi dituzten euskal herritarren artean, ...*ohiturak* izeneko azterlanean jasotako datuei jarraiki, % 99,8k gaztelaniaz irakurtzen du, normalean edo noizbehinka, eta % 33,4k, berriz, euskaraz, nahiz eta ohiko irakurleen artean % 3,8k bakarrik adierazi duen irakurritako azken liburu euskaraz idatzita zegoela. 14-24 urteko gazteen artean daude euskarazko irakurleen kopuru handienak, baita ikasleen eta unibertsitate-ikasketak dituztenen artean ere. 50.000 biztanlera arteko udalerrietan erregistratu dira euskarazko irakurketa-ehuneko handienak, udalerririk horietako herritarren ia % 45ek euskaraz irakurtzen baitu. Gipuzkoarrek (% 48,7) euskaraz arabarrek (% 23,1) eta bizkaitarrek (% 28,1) baino ia bi aldiz gehiago irakurtzen dutela adierazi dute.

Elebidunek internet euskarazko kultura-edukiak eskuratzeko zenbateraino erabiltzen duten aztertzean, Kulturaren Euskal Behatokiaren *2007-2008ko Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko Estatistikak* zera erakutsi du, % 22,4k musika eskuratzen duela, % 36,7k euskarazko webgune eta dokumentazioan sartzen dela, % 7,6k euskarazko liburuak irakurtzen eta deskargatzen dituela, eta % 6,0 eta % 7,0 euskarazko foro eta blogetan sartzen dela, hurrenez hurren. Elebidunek Bizkaian bereziki eskuratzen dituzte euskarazko edukiak (% 43,5), eta Gipuzkoaren (% 31,7) eta Arabaren (% 32,5) artean oso alde txikia ageri da.

ONDORIOAK: PUBLIKOAK ETA JARDUN EREMUAK IDENTIFIKATZEA

Jarraian aurkeztuko ditugun ondorioak EAEn irakurzaletasunaren egoera aztertu ostean atera ditugu eta argibide operatiboak lortzera bideratutako diagnostiko bat egin nahi izan dugu, Planaren jardun-ildoak bideratzeko; horretarako, irakurzaletasunarekin duten lotura kontuan izanik, jardun espezifikoak abiarazteko premia duten biztanleriaren sektore edo profilak identifikatu ditugu eta, aldi berean, gizartearen eta erakundeen arloetako eremuak identifikatu ditugu, arlo horietatik eta arlo horietan eragiteko.

Orain arte, irakurzaletasunak ez du garrantzi handirik izan EAEko politika publikoen agendan. EAEko kultura-gastu osoan irakurzaletasunarekin loturiko arloen (Liburutegiak eta Literatura eta edizioa) baturak osatzen duen ehunekoa zein txikia den ikusi besterik ez dago: beste zenbait arloetako (Musika, Museoak edo Kultura-ekintza, baita Jaiak eta herri-kultura ere) esleipenetatik oso urrun dago.

Aitzitik, irakurzaletasunak postu garrantzitsua lortu du EAEko herritarren interesen artean eta liburutegiak herritarren proportzio handienari zerbitzu ematen dieten kultura-zerbitzua dira, eta maiztasun handienarekin. Gaur egungo gizartean, irakurketa ezinbesteko tresna bihurtu da herritarrentzat, oro har; uste hori indarra hartzen ari da, bederen, eta EAEko erakunde gorenek irakurzaletasuna sustatzeko politika bati ekiteko beharra atzeman dute. Horretarako, herritarrekiko konpromisoa hartzeko eta jarduteko marjina zabala dagoela egiaztatu da.

Publikoak

Adinaren aldagaiak argi eta garbi bereizten ditu belaunaldi-talde handiek irakurzaletasunarekin duten lotura eta, hortaz, adin-tarte berean irakurzaletasunarekin loturiko ohitura eta gaitasun antzekoak (gutxi gorabehera) dituzten sektoreak identifikatzea ahalbidetzen du. Ikuspegi horretatik begiratuta, hona hemen zenbait talde garrantzitsu:

55 urtetik gorakoak.

55 urtera bitarte, adin-talde guztien irakurketa-indizeak EAEko biztanleriaren batez besteko irakurketa-indizea baino handiagoak dira baina adin horretan muga garrantzitsua dagoela esan dezakegu eta 55 urtetik aurrera irakurketaren maiztasuna murriztu egiten da. Jaitsiera hori irakurketaren euskarri edo tipologia gehientsuenetan gertatzen da (egunkariak irakurtzea salbuespena litzateke) baina astialdian liburuak irakurtzearen kasuan (orain arte irakurlea hobekien definitu duen tipologia izanik), 20 puntuko beherakada izan da. 55 urtetik gorakoek, halaber, internet eta IKTen erabilera-indize txikiak dituzte; indize horiek hain txikiak dira ezen, gaur egun, belaunaldi gazteenekiko inkomunikazio-eremu

garrantzitsuak eragin ditzakeen belaunaldien arteko mugaren arabera definitzen baita hesi digitala.

Horretaz gain, EAEko biztanleria arian-arian eta etengabe zahartzen ari denez (Estatuko biztanleria osoaren zahartze-indizea baino 3 puntu handiagoa da EAEkoa eta hamarkada honetan EAEko biztanleriaren % 20-25 bitarte izango da), biztanleriaren sektore horiei bereziki erreparatu behar zaie irakurzaletasuna sustatzeko politika publikoetan, bai ezaugarri bereziak dituztelako, bai herritar guztien indizeetan eragin gero eta handiagoa izango dutelako. 55 urtetik gorako sektore horietan, belaunaldi-berrikuntza faktore positiboa izango da, zalantzarik gabe, hezkuntza-maila eta kulturarekin eta irakurzaletasunarekin loturiko indize handiagoak eskuratu dituzten belaunaldiak sartuko baitira.

Nerabeak

14 urteren inguruan ere irakurketa-indizeak nabarmen murrizten dira. Izan ere, haurren artean irakurzaletasuna unibertsala da: 10-13 urteko haurrei dagokienez, % 93,5ek liburuak irakurtzen ditu ohiko moduan astialdian, eta % 6,5ek noizean behin; generoaren arabera ez dago alderik; baina nerabearora heldutakoan irakurketa-indizeetan jaitsiera garrantzitsua gertatzen da (14 urtetik 18 urtera bitarte, ohiko moduan irakurtzen dutenen ehunekoa % 66,6ra jaisten da, ia 30 puntu gutxiago). Hala ere, gazteen artean berriz ere gora egiten du (19-24 urteko gazteen artean % 79,2), adinean aurrera egin ahala berriro ere behera egiteko.

Baina liburuak irakurtzeko ohitura galtzea bereziki mutilen artean gertatzen da; nesken artean jaitsiera askoz ere txikiagoa da eta generoen arteko alde hori suma daiteke, halaber, irakurketa-gaitasunen ebaluazioetan (nesken alde) eta IKTen erabileran (mutilen alde). Azken batean, haurtzaroaren eta nerabearoaren amaierako urteak ere arreta handia eskatzen duten sektoretzat har ditzakegu. Gainerakoan, bada kezkatzeko moduko datu bat: gustuko dutelako sekula irakurtzen ez duten nerabeen ehunekoa adierazgarria da, eta ingurune digitalean eraginkortasunez eta eroso moldatzeko ere zailtasunak izaten dituzte aro digitalean jaiotako askok.

Gizon gazte eta helduak

Euskal gizartean, irakurzaletasunaren feminizazioa txiki-txikitatik hasten da (10 puntuko alde dago 14 urteko eta gehiagoko biztanleriaren guztizkoan) eta gainerako autonomia-erkidegoetan eta Espainia osoan baino nabariago. Irakurketa-indizeetan generoaren arabera dauden aldeak garrantzitsuak izaten hasten dira nerabearotik aurrera eta 35 urtera bitarte areagotu egiten dira; zenbait adin-tartetan, 20 puntutik gorako alde dago. Baina 45 urtetik aurrera, indizeak parekatzen hasten dira. 2009ko PISA txostenaren emaitzei erreparatuta, nerabearoan genero-aldeak nabarmenak dira: irakurrikoko ulermen-mailari dagokionez, EAEko nesken artean maila handiagoa da mutilen artean baino. Horrek esan nahi du neskek eta mutilek irakurketarekin duten harremana ez dela berdina

eta hezkuntza-sistemaren bigarren hezkuntzako etapetan suma daiteke jada alde hori.

Hori horrela izanik, emakumeek gizonen baino liburu gehiago irakurtzen dituzte, eskura dauden azterlan guztietan erabilitako aldagaiak edozein izanik ere (adina, hezkuntza-maila, lurraldea, habitata...), bi zirkunstantzietan izan ezik: okupazioaren arabera eta pantailan irakurtzea. Okupazioari dagokionez, etxeoandrea izatea (edo, hobeto esan, etxeoandretzat hartzea bere burua) batez bestekoaren oso azpiko irakurketa-indizeekin loturik dago; eta pantailan irakurtzeari dagokionez, antza, emakumeek gizonen oso atzean geratu dira, interneten erabileran portzentajezko hamar bat puntuko aldearekin.

Beste autonomia-erkidego batzuetan eta Espainia osoan ere, gizon irakurleen ehunekoak emakumeenak baino txikiagoak dira, baina aldeak ez dira EAEn bezain nabarmenak. Are gehiago, beste lurralde-eremu batzuetan ez bezala, EAeko gizon irakurleen ehunekoak ez du emakumeena gainditzen 55 urtetik edo 65 urtetik aurrera. Eta aztertu ditugun segmentazio gehienetan EAeko irakurleen proportzioa Espainiakoa baino handiagoa baldin bada, hezkuntza-maila txikieneko (bukaturako ikasketarik edo lehen mailako ikasketarik ez dutenak) EAeko gizonen kasuan ez da hori betetzen.

Arduradun politikoak eta iritzi-liderrak

EAEn kulturaren egindako gastu publikoa aztertuz gero, konturatuko gara irakurzaletasunak ez duela postu garrantzitsurik lortzen eta hori ez dator bat irakurketak gaur egungo gizartearen duen garrantziarekin; zalantzarik gabe, gizarteak irakurzaletasunaz duen irudiarekin loturirik izango du horrek. Modu sistematikoan irakurzaletasuna sustatzeko politikari ekiteko adostasun-maila handia beharko da herritar guztientzat irakurketak duen garrantzi estrategikoari dagokionez, dela hezkuntzaren edo kulturaren ikuspegitik begiratuta, dela gizartearen, ekonomiaren eta informazio-gizartearen garapenean eta gizarte-ongizatean.

Arduradun politikoak eta erakundeetako kudeatzaileak —irakurketarekin zuzeneko edo zeharkako lotura duten eskumenak dituztenekin hasita, baina ez horiek bakarrik—, beraz, sektore biziki garrantzitsua dira irakurzaletasunaren kontzeptu berria zabaldu eta sendotzeko, eta irakurzaletasuna posizio hobekoan kokatzeko EAeko administrazio publikoen agendan. Premisa horiek berak iritzi publikoan, oro har, zabaldu beharko dira eta, horretarako, arduradun politiko eta erakundeetako arduradunekin batera, iritzi-liderrak eta komunikabideekin loturiko profesionalak xede-publikotzat hartu behar dira.

Beste sektore adierazgarri batzuk

Ikasketarik ez dutenek edo soilik lehen mailako ikasketak dituztenek irakurketa-mailarik txikiak ematen dituzte beti euskarri guztietan eta motibazio guztiengatik. Argi eta garbi, komunikazioaren eta kulturaren fluxuetatik baztertuta geratzeko arrisku handiko sektorea dira eta beste aldagai soziodemografiko batzuekin (adina eta, hein txikiagoan, okupazioa, generoa, habitata edo nazionalitatea) loturik daudelako identifika daitezke. Hezkuntza-maila handiagoko kolektiboek irakurketa-indizeekin alderatuta izugarriko aldeak daude, baita IKTen erabilerari eta erabilerraztasunari buruzko mailetan ere.

Bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboek artean, zalantzarik gabe atzerriko etorkinak dira nagusi; eta ez dugu ahaztu behar EAEko biztanlerian duten garrantzia gero eta handiagoa dela azken hamarkadan. Kolektibo horien kasuan, irakurketak balio erantsia du; hain zuzen ere, kultura integratzeko eta laneratzeko ezinbesteko tresna izatearen balio erantsia.

Emakumeen artean, etxekoandre izatea salbuespena da generoaren irakurketa-ohiturei dagokienez, irakurleen artean nagusi baitira emakumeak. Testuinguru horretan, etxekoandrearen profila hau da: 55 urte edo gehiagoko emakumea, lehen mailako ikasketak dituena edo burututako ikasketarik ez duena, eta 50.000 biztanle baino gutxiagoko herri batean bizi dena.

Eremuak

Hezkuntza-sistema

Hezkuntza-sistema da, zalantzarik gabe, irakurketaren eta irakurrizkoaren ulermenaren gaitasunak hobetzen jarraitzeko eremu nagusia belaunaldi berrientzat, ELGA Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeko herrialdeen emaitza onenen pareko maila lortzeko eta bigarren hezkuntzan nesken eta mutilen artean atzemandako aldeak gainditzeko.

PISA 2009 txostenean bildutako gomendio espezifikoek artean, hezkuntza-sistemak honako hauei heldu beharko lieke: alde batetik, testu etenen kasuan irakurrizkoaren ulermena hobetzeari eta, batez ere, testu elektronikoen kasuan, eskola-inguruneak alfabetatze informazionalaren gaikuntza bere gain hartuta; eta, bestetik, irakurzaletasuna eta irakurtzeko interesa sustatzeari, baita irakurketarekin loturiko tipologia eta material askotarikoak ere.

EAEko unibertsitateko ikasleen artean irakurzaletasunari buruzko azterketa espezifikorik ez denez egin, kolektibo horiek ezin ditugu xede-publikoek artean sartu, baina arreta bai eman beharko litzaieke, datozen hamarkadatan irakasle edo profesional izango baitira eremu guztietan.

Ikastetxearen egitekoa erabakigarria izan daiteke EAEn bizi diren haur gehienek irakurzaletasuna eta irakurtzeko ohiturak sendotzeko, nerabegarora iristean sendotuta egon daitezten eta galera handiegirik izan ez dezaten. Hezkuntza-zentroetan irakurzaletasuna sustatzeko bertako planak ezartzea ezinbestekoa izan daiteke nahitaez lortu beharreko helburu hori betetzeko eta, horretarako, irakasleek, familiek eta haurrak bizi eta hezi diren udal-inguruneak modu aktiboan inplikatu behar dute.

PISA txostenean irakurzaletasuna hobetzeko estrategia egokitzat jotzen dena kontuan izanik, honako helburu hauetara bideratutako irakurketa-ohiturak indartu beharko lirateke:

- Irakurzaletasuna eta irakurtzeko interesa sustatzera, askotariko testu eta materialen bitartez.
- Egunero irakurtzeko astia hartzera (gutxienez 30 bat minutu).
- Irakurketa-estrategia egokiak sortzera.

Ikuspegi horretan, ikastetxeko liburutegiak garrantzi oso handia izan dezake, bi ikuspuntutatik begiratuta. Alde batetik, adin eta hezkuntza-maila guztietako ikasleen artean irakurzaletasuna sustatzeko plataforma den aldetik. Eta, bestetik, haurren eta nerabeen alfabetatze informazionalan eta digitalean; izan ere, aro digitalean jaiotakoek lineako informazio digitala erabiltzeko dituzten trebetasunak eta gaitasunak egiazkoak baino gehiago itxurazkoak direla adierazten duten zantzuak ez dira gutxi. Ikastetxeetan IKTe-tako hornikuntzan aurrerapen handia egin da baina badirudi aurrerabide horrek ez duela ekarri teknologia horiek hezkuntza-jardunean txertatzea eta erabiltzea; halaber, ikastetxe gehientsuenetan eskola-liburutegiak izateak ez du esan nahi ikasle eta irakasleentzat prestakuntza-agente bihurtu direnik.

Liburutegi publikoak

Liburutegiek potentzial handia dute EAEko herritarrei irakurzaletasunarekin loturiko zerbitzu garrantzitsuak emateko. Administrazio publikoentzat, herritarren sektore askorengana iristeko plataforma pribilegiatu dira liburutegiak, irakurzaletasuna sustatzeko politikei dagokienez. Eta bereziki liburutegi publikoak:

- EAEko udalerrri gehienetan bada liburutegirik eta biztanleen sektore askotan oso barneratuta egotera iritsi dira, gero eta gehiago erabiltzen baitituzte liburutegietako zerbitzuak.
- Pertsona mota guztiak hartzen dituzte, maila guztietakoak, eta bazterkeria-arriskuan dauden gizarte-sektoreekin (etorkinak, hezkuntza-maila urrikoak edo analfabeto funtzionalak, langabeak...) bereziki harberak eta integratzaileak dira. Horretaz gain, liburutegi asko irakurzaletasuna sustatzeko programak garatzen ari dira gaur egun, publiko horiek

erakartzeko eta integratzen laguntzeko asmoz; esate baterako, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren *Munduko paisaiak-Paisajes del mundo* kanpaina.

- Kulturarekin eta hezkuntzarekin loturik daude eta hezkuntza-sistemarekin ere urte luzetako lankidetzak izan dute.
- Gizarteratzeko gune dira eta, azken urteotan, teknologia tradizionalak eta komunikazioko teknologia berriak uztartzeko gai direla frogatu dute, ingurune digital berrietarako egokitzeko gai direla, administrazioaren beste zerbitzu batzuk baino lehenago.

EAEko irakurketa publikoko sarea aztertzea ahalbidetzen duten adierazleei erreparatuta, Espainiako batez bestekoaren gainetik dagoela ikusiko dugu ia elementu guztietan, baina azterketa zorrotzagoa eginez gero, kontuan hartzeko moduko gabeziak atzeman dira:

- o Sareak atomizazio-zantzu nabariak ditu eta sareko harreman eta egiturak ez dira behar bezain sendoak, autonomia-erkidegoan, probintzian edo hirian. Ez dago liburutegi nagusirik hirietan edo zerbitzu zentralik eskualdean edo lurraldean; beraz, sistema moduan egituratzea zaila da eta sareko zerbitzu jakin batzuk ezin dira garatu, zentralitate-mailaren bat eskatzen dutelako (katalogo kolektiboa eta txartel bakarra, internet bidezko liburutegi-zerbitzuak edo liburu elektronikoaren ingurukoak...).
- o Irakurketa publikoko sarearen egiturarik eza horren azpian, erakundeen artean akordioak lortzeko zailtasunak identifika daitezke, baterako eskumenak baitaude eremu horretan. Zenbait proiektu bertan behera geratu izana adierazgarria da; izan ere, lehenago ere proposatu izan diren arren, erakundeen arteko lankidetzak-akordioak sinatzea eskatzen dute (irakurketa publikoaren mapa, liburutegi publiko guztien sarean erabat txertatzea...).
- o Zerbitzuaren estaldura ia unibertsala da, baina soilik itxuraz. Gabeziak habitataren araberrako bi muturretako udalerrietan sumatzen dira: hiri jendetsuenetan eta herri txiki gehienetan.
- o Irakurketa publikoko sareari atxikitako establezimenduak oso heterogeneoak izaki, herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuetan ere aldean handiak dira.
- o Liburutegi batzuetan zerbitzuak garatu eta zabaldu dituzte euskarri berriekin, internet bidez edo alfabetatze informazionalako zerbitzuekin, baina zerbitzuen zabalitze eta modernizazio hori (bereziki, teknologia berrietan oinarritutakoa) ez da orokorra, inolaz ere.

Udalerria

Bizilekuak pertsonen bizitzan eragin oso handia du, onerako eta txarrerako. Udalerri batek hiriarekin edo landa-eremuarekin loturiko ezaugarriak izateak ere aldeak eragiten ditu herritarren irakurketa-ohituretan eta, EAEn kasuan, alde horien minimizatuta agertzen dira: udalerri txikietan ez dira atzematen landa-eremuarekin loturik egon ohi diren gabeziak, irakurzaletasunaren eremuan. Aurreko datu horrek ez du ezkututzen zenbait udalerri txikitan irakurtzeko aukerak oso txikiak direla (eta zenbait hiri-inguruetan ere bai) baina, oro har, EAEn irakurzaletasuna sustatzeko politikaren estrategiak ez dirudi landa-eremura bereziki bideratu behar direnik.

Hala ere, udal-eremuan bai; udal-eremuan modu sistematikoan eta planifikatuan lan egin behar da. Kultura-gastuaren azterketan argi ikusi denez, EAEn udalak protagonista dira jada herritarren eskaera eta premiei erantzuteko garaian, kulturari dagokionez eta administrazioak ematen dituen kultura-zerbitzuen kudeaketari dagokionez. Oro har, gainera, herritarren bizimodua hobetzeko ekimenei ekiteko garaian, jendea biltzeko eta sustapeneko gaitasun handia dute. Eta gaitasun horren bitartez herritarrak irakurzaletasunaren sustapenarekin konprometitzea lor dezakete, baita herriko agente guztiak (hezkuntzaren, kulturaren, elkarten, merkataritzaren, sormenaren... arlokoak) mobilizatu eta integratzea ere, irakurzaletasuna sustatzeko programak garatzeko.

Etxea

Familia-ingurunea oso garrantzitsua da irakurtzeko ohiturak sortu eta horiei eusteko eta haurren kasuan aspaldian frogatuta geratu da garrantzi hori, baita, gaur egun, helduen kasuan ere, bereziki adinekoen kasuan. Hainbat azterlanen arabera, etxean irakurtzeko materialaren hornidura-mailak zerikusi handia du haur, nerabe eta helduen irakurzaletasunarekin. Gurasoen eta etxean bizi diren senitarteko helduen irakurketa-ohiturak, txikienek edo txikienekin irakurtzeko hartzen den astia, familian liburuak oparitzea, hezkuntza-lanetan edo komunikazio-teknologiak erabiltzen laguntzea... elementu horiek guztiak funtsezkoak dira belaunaldi berrien artean irakurketaren aldeko jardunbide egokiak zabaltzeko eta finkatzeko. Eta alderdi horiei dagokienez, EAEn datuei erreparatuz gero, zer hobetu badagoela ikusiko dugu.

Gainerakoan, etxea da belaunaldien arteko komunikaziorako gune nagusia; hainbat belaunaldi batera bizi dira etxean eta informazioaren hainbat teknologia, zenbait irakurketa tipologia eta irakurketako eta komunikazioko hainbat gaitasun uztartzen dira. Beraz, eremu hori bereziki egokia da irakurketak eta trebetasunak, gomendio eta gaitasun informazionalak partekatzeko, bai helduek gazteekin, bai gazteek helduekin; hartara, komunikazio-teknologietan irakurketaren erabileran belaunaldi-hesiak sortzeko arriskuari aurre egingo zaio.

